



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko abuztuaren 10a

82. ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A :

Galderak:

- Galdera, Kriariaren aurkako Planaren publizitateak eragindako gastuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galderak, zenbait kontusailen betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoak. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Plazaolako eta Sakanako eskualdean paratu diren turismo-seinaleen kostu ekonomikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Plazaolako Turismo Partzuergoak Nafarroako Gobernuari turismo-seinaleak paratze aldera aurkeztutako proiektuari eta aurrekontuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, krisiari aurre egite aldera 2009rako sustatutako neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuko behin-behineko langileen kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Leitzarango autobia, A-15a, Pagozelai inguruan itxi izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Nafarroako jatorri izendapen bakoitzean pleguen arauak ez betetzeagatik 2009an jarritako zigorei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Ablitasen erroldatutako olibondoaren kopurua jaitsi izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Ablitasen 7.000 olibondo zahar desagertu izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, “Irabazi asmorik ez duten erakundeentzako laguntzak” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, “Irabazi asmorik ez duten erakundeentzako laguntzak” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).

- Galdera, “FAIN Nafarroako Immigranteen Elkartearen Federazioarekin lankidetzan aritzeko hitzarmena” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, jakiteko ea Sarrigurenen oinezkoen lurrazpiko pasabiderako beste aukerarik aztertu ote den buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak ziurtasunez dakien Sustapen Ministerioak gastuari euste alde-ira iragarri duen murrizketak eraginik izanen ote duen Nafarroan prestazio handiko tren eraikitzean buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Nafarroako ekonomia suspertzeko 2009-2011 urteetarako neurriei buruzko azaroaren 6ko 18/2008 Foru Legeko bigarren xedapen gehigarria betetze aldera hartutako neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, “Iruzur Fiskalaren Aurkako Plana” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Sanferminen Museora bideratutako ekonomia-baliabideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Estatu Batuetara egiten duen bidaiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, kontrolik gabe dauden zaborteak kontrolatze aldera hartutako neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, ADN-azterketen laborategiaren kudeaketa Nasersari esleitzeko arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, Nafarroako Garraioei, Mugikortasunari eta Azpiegiturei buruzko Plan Integrala taxutzeko aurreikuspeni buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, Nafarroako Bidaiarien Garraioari buruzko Plana taxutzeko aurreikuspeni buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, Concerdep eta Concerplus programen esparruan itundutako zahar-etxeei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, galzoriko espezieak zentral eolikoetan hiltzea ekidite aldera hartutako neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Galdera, uztailaren 2ko 13/2008 Foru Legeak oinarritzko errentari dagokionez ezartzen duena betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Galdera, animaliak babesteko Etxauriko zentroa Centro Veterinario San Fermíni esleitu izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Kriaren aurkako Planaren publizitateak eragindako gastuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Kriaren aurkako Planaren publizitateak eragindako gastuari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko abenduaren 11ko 120. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

idatzizko erantzuna jasotzeko galdera bat egin du Nafarroako Gobernuak kriaren aurka abiarazitako neurrietatik onura nola atera herritarrei jakinarazteko 2009an egindako publizitate-kanpaina instituzionalari lotutako zenbait konturi buruz (PES-320). Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Telletxea jaunak berak gai berari buruz egindako PES-00314 galderari emandako erantzunean adierazi bezala, Kriaren aurkako Planari buruzko publizitate-kanpainaren kostua 236.006,39 eurokoa izan zen.

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak

Kanpaina zabaldu zuten komunikabideen zerrenda eta haietako bakoitzean inbertitutako zenbatekoak PES-00314 galderari emandako erantzunean adierazitakoak dira:

PRENTSA	
Diario Navarra	54.597,51
Diario Noticias	30.703,20
WEB	
diariodenavarra.es	13.431,25
dariodenoticias.com	6.398,44
IRRATIA	
Cope Navarra	19.893,69
Onda Cero	27.293,33
Ser Navarra	30.185,87
Onda Ribera	520,00
Punto Radio	2.595,60

TELEBISTA	
TVE	13.550,00
Antena 3	9.547,50
Canal 6	4.851,00
Popular TV	2.156,00
Canal 4	3.185,00
ALDIZKARIAK	
Calle Mayor	960,00
Guaixe	494,00
Plaza Nueva	724,00
Mendixut	918,00
Entreto2	632,00
Ttipi Tttapa	670,00
Ribera Navarra	510,00
La Voz de la Ribera	650,00
Construir Navara	603,44
Iruñerria	1.125,00
Entorno zona media	400,00
La Verdad	600,00
Zona hospitalaria	800,00
Mailope	200,00
MARKESINAK	
Lekua alokatzea	8.811,56

2009ko Nafarroako Aurrekontu Orokorretako lerro hauek erabili ziren Krisiaren aurkako Planaren kanpaina finantzatzeko:

- 100000 10100 2269 421300 “Krisiaren aurkako neurriak. Koordinazio-, kudeaketa- eta komunikazio-jarduerak”, Ekonomia eta Ogasun Departamentuarena.

- B1120 B10003 2262 921500 “Publizitatea”, Erakundeekiko Harremanetarako Departamentuarena.

- 32200 320000 2269 261102 “Publizitate-kanpainak, ikastaroak, lehiaketak, argitalpenak eta liburuen edizioa”, Etxebizitza eta Lurraldearen Antolamendurako Departamentuarena.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua betetzeko.

Iruñean, 2010eko martxoan

Nafarroako Gobernuko eledun eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Alberto Catalán Higuera

Galderak, zenbait kontusailen betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoak.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galderak egin ditu zenbait kontusailen betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 10eko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko martxoaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán foru-parlamentariak galdera egin du 2009ko ekitaldiko kontusail batzuk (2010. urteko PES-023, 024, 025, 026, 027 eta 028 gisa sailkatuta) zer neurritan erabili diren jakiteko. Hona hemen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

PES-023/10.

2009ko gastuetarako aurrekontuko "010001 - 01000 - 7809 - 921100" kontusaila, "Fusilatuen senideen elkarte. Sartagudako memoriaren parkearen ornamentazioa" izenekoa (100.000 €), osorik erabili da.

PES-024/10

2009ko gastuetarako aurrekontuko "010001 - 01000 - 4809 - 921100" kontusaila, "Memoria Historikoaren Legearen Garapena" izenekoa (50.000 €), osorik erabili da; obligazioaren % 100 onartuta dago, eta onuradunek oraindik ez dute egin gastuaren justifikazioa ordainketa egiteko.

PES-025/10:

2009ko gastuetarako aurrekontuko "054001 - 02710 - 4609 - 134100" kontusaila, "Hitzarmena borondatezko suhiltzaileentzat, sorospenerako eta larrialdietarako" izenekoa (190.000 €), % 99,9 erabili da (189.881,22 €), eta oso garrantzi gutxikoa da erabili gabe geratutako zenbatekoa (emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren eta onuradunek azkenean justifikatutako gastuaren arteko aldea).

PES-026/10

2009ko gastuetarako aurrekontuko "054002 - 02700 - 4819 - 131100" kontusaila, "DYAren hitzarmena babes zibileko jardueretarako eta larrialdietarako" izenekoa (109.000 €), osorik erabili da.

PES-027/10 eta PES-028/10

2009ko gastuetarako aurrekontuko "060001 - 06000 - 2266 - 112100" kontusaila, "(**) Justiziako profesionalak prestatzeko jarduerak" izenekoa (75.000 €), % 69,6 erabili da (52.178'17 €). Justizia Zuzendaritza Nagusiak jakinarazitakoaren arabera honako hau izan da kontusaileko zenbateko osoa ez erabiltzeko arrazoia: aipatu zuzendaritza horren erantzuna jaso zuten eskabideak baino ez zituen egin Justizia Administrazioak eta, gainera, kontusail espezifiko honen bidezko prestakuntzaz gain, Justizia Administrazioaren zerbitzuko pertsonalak, gainerako funtzionarioek bezala, INAPEk antolatu eta finantzatutako prestakuntzan parte hartzen du.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko otsailaren 24an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez

Galdera, Plazaolako eta Sakanako eskualdean paratu diren turismo-seinaleen kostu ekonomikoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Plazaolako eta Sakanako eskualdean paratu diren turismo-seinaleen kostu ekonomikoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 15eko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko martxoaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak informazioa eskatu du Plazaola eta Sakanako eskualdeei

buruz; zehazki, jakin nahi dute zenbat diru gastatu duen Nafarroako Gobernuak seinaleztapen turistiko berrian eta zein den erabilitako kontusaila (PES 266). Hona hemen Nafarroako Gobernuak Kultura eta Turismo kontseilari Juan Ramón Corpas Mauleón jaunaren erantzuna:

1. Inbertsioa 9.995,44 eurokoa izan da.

2. Kontusaila A 10001 A 1110 6055 432300 "Seinaleztapen turistikorako plana" da.

Hori guztia jakinarazten dut.

Iruñean, 2010eko otsailaren 23an

Kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Plazaolako Turismo Partzuergoak Nafarroako Gobernuari turismo-seinaleak paratze aldera aurkeztutako proiektuari eta aurrekontuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Plazaolako Turismo Partzuergoak Nafarroako Gobernuari turismo-seinaleak paratze aldera aurkeztutako proiektuari eta aurrekontuari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 15eko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko martxoaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak informazioa eskatu du Plazaolako Turismo Partzuergoak seinale turistikoak jarri izanari lotutako zenbait kontu-

ri buruz (PES 267). Hona hemen Nafarroako Gobernuak Kultura eta Turismo kontseilari Juan Ramón Corpas Mauleón jaunaren erantzuna:

Plazaolako Turismo Partzuergoak seinaleak jartzeko eskatu zion Kultura eta Turismo Departamentuari. Eskaera aztertu eta onartu ondoren, Herri Lan Departamentura eraman zen, eta departamentu horrek beharrezko azterketa teknikoa egin zuen, leku eta seinale egokiak zehazteko.

Jarduera horretan 9.995,44 euro inbertitu dira, Produktuen Antolaketa eta Garapen Zerbitzuaren kontusailan zordunduta.

Hori jakinarazten dizut behar diren ondorioak izan ditzan

Iruñean, 2010eko otsailaren 23an

Kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, krisiari aurre egite aldera 2009rako sustatutako neurriei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du krisiari aurre egite aldera 2009rako sustatutako neurriei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren Xko X. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko martxoaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

CDN-Convergencia de Demócratas de Navarra foru-parlamentarien elkarteko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera parlamentario bidez (PES-277) informazioa eskatu du Nafinco sozietatearen bitartez hipoteka-bermearekin etxebizitza babestua erosteko emandako mailaguaren %10eko gehigarritzko abalari buruz. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Galdera hauei erantzuten dien eranskin bat gehitzen da:

1. Zenbat pertsonak atera dute onura 2009ko martxoan abiarazitako neurri horretatik?
2. Zenbateko kostua izan du neurri horrek Foru Ogasunarentzat?
3. Atxikitako kreditu-erakunde bakoitzarekin sinatutako polizen kopurua zehatz adierazteko

eskatzen da, hala nola haien zenbateko osoa eta erakunde bakoitzeko zenbatekoa.

4. Aurreikusita al dauka Gobernuak neurri osagarriren bat babestutako etxebizitzaren esleipendunei maileguak errazago emateko?

Iruñean, 2010eko martxoaren 5ean

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

ERANSKINA

1) Zenbat pertsonak atera dute onura 2009ko martxoan abiarazitako neurri horretatik?

2010eko otsailaren 12an, etxebizitza erosteko 234 abal-eragiketa zeuden gauzatuta. Eragiketa bakoitzak pertsona bati eragin diezaioke, edo biri, eskatzailea nor den kontuan hartuta: gizabanako bat ala bikote bat.

2) Zenbateko kostua izan du neurri horrek Foru Ogasunarentzat?

Abalak Nafincok ematen dituzenez, haien kostua Nafincori dagokio, ez Foru Ogasunari. Nolanahi ere, Nafincoren funtzionamenduan sortutako eragiketa-gastuez gain, abalen kostuak, halaber, zerikusia izanen du lotuta izan dezaketen ezberhar-tasarekin; gaur egun, ordea, goiz da tasa hori aurreikusteko.

3) Atxikitako kreditu-erakunde bakoitzarekin sinatutako polizen kopurua zehatz adierazteko eskatzen da, hala nola haien zenbateko osoa eta erakunde bakoitzeko zenbatekoa.

Eginiko eragiketak hauexek dira:

	ERAGIKETEN KOPURUA	MAILEGUEN ZENBATEKOA	ABALAREN ZENBATEKOA
NAFARROAKO KUTXA (CAN)	214	31.246.792	3.127.555
CAJA RURAL DE NAVARRA	10	1.382.682	145.100
EUSKADIKO KUTXA	1	196.000	20.080
BANCO SANTANDER	2	218.800	22.502
BANCO POPULAR	2	190.000	32.435
IBERCAJA	4	372.885	48.205
CAJA MADRID	1	118.000	4.790
GUZTIRA	234	33.725.159	3.400.667

4) Aurreikusita al dauka Gobernuak neurri osagarriren bat babestutako etxebizitzaren esleipendunei maileguak errazago emateko?

Gaur-gaurkoz, ez dago aurreikusita beste neuririk horretarako, baina, ezin bestela izan, jarrera irekia dugu Krisi Ekonomikoari erantzuteko Ekimenerarako eta horien Jarraipena egiteko Batzordean egiten den edozein proposamen entzuteko.

Galdera, Nafarroako Gobernuko behin-behineko langileen kopuruari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuko behin-behineko langileen kopuruari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 10eko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko martxoaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Foru Komunitateko Administrazioan lan egiten dutenen artean dagoen behin-behinekotasunari buruz (PES-345). Hona hemen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1.- 2009ko abenduaren 1ean, Foru Komunitateko Administrazioaren eta hari lotutako erakunde autonomoen zerbitzura aldi baterako kontratuarekin lan egiten zuten enplegatuen kopurua 8.468koa zen, honela banatuta:

- Kontratazioak lanpostu hutsak betetzeko: 2.541
- Kontratazioak ordezkapenak egiteko: 2.912
- Egiturazko kontratazioak: 2.675
- Prestatzen ari den pertsonal egoiliarra: 340

2.- 2009ko abenduaren 1ean, Foru Komunitateko Administrazioan eta hari lotutako erakunde

autonomoetan ari ziren langile guztiak kontuan hartuta, aurreko atalean aipatutako behin-behiko langileak %33,47 ziren, honela banatuta:

- Lanpostu hutsak betetzeko kontratatuen ehunekoa: %10,04
- Ordezkapenak egiteko kontratatuen ehunekoa: %11,52
- Egiturazko kontratazioen ehunekoa: %10,57
- Prestatzen ari den pertsonal egoiliarraren ehunekoa: %1,34

3.- Aipatzen diren urteetako abenduaren 1ean, eta kontuan hartuta Foru Komunitateko Administrazioan eta hari lotutako erakunde autonomoetan ziharduten langile guztiak, honako hau izan da behin-behineko langileen ehunekoaren eboluzioa azken urteetan:

- 2004. urtea: %33,93
- 2005. urtea: %32,61
- 2006. urtea: %35,11
- 2007. urtea: %34,78
- 2008. urtea: %33,89
- 2009. urtea: %33,47

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko martxoaren 1ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez

Galdera, Leitzarango autobia, A-15a, Pagozelai inguruan itxi izanari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Leitzarango autobia, A-15a, Pagozelai inguruan itxi izanariburuz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 23ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko martxoaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentari-taldeari atxikitako foru-parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du A-15 errepidea (Leitzarango autobia) 2010eko otsailaren 11ko elur-ekaitzen ondoren gelditu zen egoerari buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1. 2010eko otsailaren 11n (osteguna), elurra gogotik egin zuen Nafarroako Foru Komunitatean eta herrialdeko gainerako lekuetan.

Autobiei dagokienez, elur-ekaitza bortitzak eta tenperatura baxuak izanen zirelako iragarpenak ikusita, Nafarroako Gobernuak autobietan elurra kentzeko izendatuta zeuzkan ekipo guztiak abian jarri zituen (elurra kentzeko 20 ekipo); horietatik, 12 ekipo A-15ean (Leitzarango autobian) egon ziren, 2010eko otsailaren 11ko 06:00etatik (osteguna) hilaren 12ko 11:30era arte (ostirala).

Ordu berean, autobietarako "in situ" koordinazio-organoak ere martxan jarri ziren.

Egoera zein zen kontuan hartuta, Nafarroako Gobernuak eguraldi-iragarpenaren arabera jokatu du, eta autobietan ez da gertatu inolako gorabehera garrantzitsurik, kamioien zirkulazioan izan ezik, arazo zehatzen bat izan baita ekaitza bortitzen zen uneetan, baina horiek eraginkortasunez eta azkar konpondu dira, mozte teknikoak eginez galtzadako elurra garbitzeko.

2. Egun osoan, gutxienez autobia ildo bat egon zen irekita zirkulaziorako, eta kamioiei zirkulazioa onartu zitzaizen. Une zehatz batzuetan ekaitz gogorak izan ziren, autobien zoladuran berehala eragina izan zutenak, eta, horregatik, baliteke arazoren bat sortu izana ibilgailu astunen

zirkulazioan. Hala ere, Foruzaingoak eta Guardia Zibilak sarbideetan esku hartu zuten, eta kamioiak autobian sartzea debekatu zuten, autobian barrena ondo zirkulazioa ziurtatuta egon bitartean (mozte teknikoak).

Guztiarekin ere, ez da zaila kamioien bat edozein unetan gurutzatuta gelditzea eta, horregatik, mozketaren edo auto-ilararen bat gertatzea. Gorabehera hori arrazoi askorengatik gerta daiteke: gidari batzuek kasurik ez egitea zirkulazio-agenteen argibideei edo autobian elurra adierazteko jarritako seinaleei (debekatuta kamioiak aurreratzea); ibilgailuaren pneumatikoak gaizki egotea; eta abar. Horiei guzti, gainera, eguraldia txarra izatea eta autobien orografia mendikoa izatea erantsi behar zaie.

3. Nafarroako Gobernuak neguko bidezaintza-plana abiarazi zuen, eta daukan giza baliabide eta baliabide material guztiak mugiarazi zituen (elurra kentzeko 20 ekipo, bertatik bertara koordinatuzko organoak, aldatzen diren mezuak daukaten panelak, web-orrialdearen bidezko informazioa, kontserbazio integralerako pertsonala, zirkulazio-patrulak eta abar), aldeztuz aurretik iragarritako elur-ekaitz bortitzak eta izotzak eragindako eguraldi txarraren ondorioz gerta zitezkeen arazo guzti-guztiak konpontzen ahalegintzeko, "Nafarroako bide-sareko gorabeheretan esku hartzeko eskuliburua eta Neguko Bidezaintza Plana" izenean jasota dagoen bezala.

4. Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak "Nafarroako bide-sareko gorabeheretan esku hartzeko eskuliburua eta Neguko Bidezaintza Plana" dauka duela zenbait urtetatik, eta hori urtero eguneratu eta onartu egiten da zuzendari nagusiaren ebazpen bidez. Dokumentu hori eraginkortasunez aplikatzen da, eta, besteak beste, berariaz jasotzen ditu honako hauek: zirkulazioa zuzentzeko polizia-taldeekiko "in situ" koordinazioa; elur-kotaren arabera, errepidean elurra kentzeko jarri beharreko ekipoen kopurua; eta abar. Horiek guztiak ezinbestekoak dira bidezaintza ziurtatzeko negu-garaian eta eguraldia txarra denean.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateginaren 192.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko martxoaren 5ean

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, Nafarroako jatorri izendapen bakoitzean pleguen arauak ez betetzeagatik 2009an jarritako zigorrei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroako jatorri izendapen bakoitzean pleguen arauak ez betetzeagatik 2009an jarritako zigorrei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 22ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko martxoaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru-parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera parlamentario bat egin dio Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari (PES-00278). Hona hemen nire erantzuna:

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuan zenbait zehapen-espeditente izapidetu dira. Espeditente horietako batzuk oraindik gorako helegitea edo beste instantzia batzuetan jarritakoa ebazteko prozesuan daude. Hona hemen zehapen-espeditenteak: Nafarroako Jatorri Deitura (ardoa): 7, zehapenarekin ebatzita; esparragoaren jatorri deiturak: 14 (5, zehapenarekin ebatzita);

pikillo jatorri deitura: zehapen bat; Erronkariko gaztaren jatorri deitura: 2, zehapenarekin ebatzita; Nafarroako Aratxearen adierazpen geografiko babestua: zehapenik ez; Nafarroako arkumearen adierazpen geografiko babestua: zehapenik ez; Nafarroako patxaranaren adierazpen geografiko babestua: zehapenik ez; eta Tuterako orburuaren adierazpen geografiko babestua: zehapenik ez. Hori guztia Kontseilu Arautzailearen barruan baldintza-orria betetzen den ala ez ikusteko izapidetu den egiaztatze-prozesuan izan daitezkeen adostasunik ezak aztertzea baztertu gabe. Horri dagokionez, azpimarratu behar da agintari eskudunak jartzen dituen zigorrak ez direla gehienbat izaten baldintza-orria ez betetzeagatik, Kontseilu Arautzaileak (edo erakunde egiaztatzaileak) baitu horretarako eskumena; aitzitik, zigortzeko arrazoia izaten da azken produktuan ez-betetzeak gertatzea, bai etiketak gaizki jarri direlako, bai produktuen ezaugarriak ez datozelako bat arautegi orokorraren espezifikazioekin nahiz kalitate-izenak babestutako produktuari eska dakizkiokkeenekin.

Hori jakinarazten dut, Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko martxoaren 10ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, Ablitasen erroldatutako olibondoen kopurua jaitsi izanari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Ablitasen erroldatutako olibondoen kopurua jaitsi izanari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren Xko X. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru-parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera parlamentario bat aurkeztu du Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuan Ablitasen erroldatutako olibondoen kopurua gutxitu izanari buruz (PES-00370). Hona hemen nire erantzuna:

Departamentu honek dituen datu ofizialen arabera (departamentuko kontseilariak datu horien berri eman zuen aurreko otsailaren 16an Parlamentuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean egindako agerraldian), 9.879 dira errotik erazitako olibondoak, eta horietatik ia 2.000 beste inguru batzuetan birlandatu dira. Olibondoak erazteko arrazoiak agerraldian azaldu ziren, baina, funtsean, honela laburbiltzen dira: jabeek, jabetza berrantolatzeke prozesuaren ondoren (prozesuan lursail gehiago esleitu zitzaizen), landaketak berrantolatu beharra dute eta, horrenbestez, kontzentrazio-prozesuan esleitzen zaizkien lursailen egoerara egokitu behar dituzte landaketa horiek, eta, horretarako, alde batetik, erazketa batzuk egiten dituzte eta, bestetik, landaketa berriak egiten dituzte lursail berrietan; izan ere, lursail horietan neurriak bideragarriagoak dira eta, askotan, ureztatze-sistema modernizatua dute.

Bigarren galderari dagokionez, parlamentuan egindako agerraldi berean azaldu zen bezala, neurri hauek hartu ziren:

- Bideragarritasun-azterketa bat egin zen kontzentrazioan sartutako olibondoak ebaluatzeke, eta horretatik ondorioztatu zen partzelak kontzentratzeke eta ureztaketa modernizatzeke jarduerak

gauzatu ezean, Ablitasen olibondo gehiago erazi beharko zirela, landaketen partzelazio eta egitura oso okerrari lotutako bideragarritasun ekonomikorik ezaren ondorioz.

- Olibadiak aurreko jabeek itzultzen ahalegindu zen, horrek partzelak kontzentratzeke aukera ematen duen neurrian.

- Ureztatze-perimetroan, kontzentrazioko masa komunerako 206.835m²-ko azaleraren zatirik handiena olibadi-eremuari eusteko erabili zen; izan ere, jakiten zenean jabe batzuek ez zutela asmorik olibadia landatzen jarraitzeke, lursail horiek masa komuneko loteetara pasatzen ziren, haien jarraipena berma zedin.

- Lursailen kontzentrazioa egiteke obren proiektuan zenbait kontusail jaso ziren, alde batetik, jabeek kontzentratzeke beren aurreko lursailetan olibondoak ez erazi izanagatik eta, bestetik, olibondoak aldatzeke, baldin eta aurreko neurriak hartu arren errotik atera behar izan baziren.

- Obretan zehar, eta hoditerien eta bideen sareak Ablitasko olibadiari ahalik gutxiena eragiteke, olibadi-tarteetan aldi bateko okupazioaren zabalera gutxitzen ahalegindu da.

- Balio bereziko 186 olibondo identifikatu ziren ingurumenaren kontserbazio-esparruetan; leku horietan espresuki dago debekatuta haiek aldatzea edo eraztea. Ia 2.000 Ablitasen eta Ablitastik kanpo birlandatu dira. Ia 400 Senda Vivara eraman dira. Inguruaren adierazgarritzat jotako 100 olibondo errotik eraztea eta ondoren birlandatzea.

Lehenago eta otsailaren 16ko agerraldian adierazi bezala, olibondoak erazteak lursail-kontzentrazioarekin dauka zerikusia. Landaketa iraunkorrak lursailen kontzentrazioa egiteke prozesuetan berregituratzeak eragin kaltegarria dauka epe laburrean, baina beharrezkoa da hori onartzea partzelak kontzentratzeke edozein prozesutan; baina betiere, Ablitasen ahalegindu diren bezala, eragina ahalik gehiena murrizteke beharrezko neurriak hartuz. Orain arteko kontzentrazio-jardueren jarraipen historikoak eta izandako esperientziak argi uzten dute landaketa iraunkorren sailen bideragarritasunak hobera egiten duela epe ertain eta luzean, epe horretan, erazitako landaketa iraunkorren masa horiek berreskuratzeaz gain, haien azalera handitu egiten delako. Era berean,

kontseilariak aurreko otsailaren 16an egindako agerraldian azpimarratu zuen 2005-2006 kanpainan 70.196 olibondo zeudela Ablitasen, eta gaur egun 72.317 daudela. Kontseilariak nabarmendu zuen olibadien azalera %128,14 handitu dela azken urteotan partzela-kontzentrazioa egin den udalerrietan. Ablitasen, olibadien azalera lursailen kontzentrazioa egin den beste inguruetan adina handituko da.

Errotik erauzitako olibondoen adinari dagokionez, kontseilariak Parlamentuan, halaber, esan zuen Ablitasko olibondo gehienek, bertakoek jendaurrean adierazi bezala, izozte handi bat jasan zutela duela hamarkada batzuk eta, horren ondorioz, Ablitasko ehun urtetik gorako ia olibondo guztiak bota eta mozkindu egin behar izan zituztela.

Nafarroako Gobernuak landaketak mantentzeko hartzen dituen neurri nagusien xedea landaketa horien errentagarritasuna handitzea da. Nekazariarentzat errentagarriak izanez gero baino ez dute iraunen. Horregatik, ustiatzearen errentagarritasuna eta lehiakortasuna handitzea da Nafarroako Gobernuak bultzatzen ari den neurrien ezaugarri komuna, bide hori baita haien eta landaketen iraupena bermatzeko onena. Hauek dira neurri horietako batzuk: lursailen kontzentrazioa; ureztaketan

modernizazioa; Nafarroako olioaren jatorri-izenari ematen zaion bultzada (izen hori, neurri handi batean, bertako Arroitz eta Enpeltre barietateek eta landatzeko modu tradizionalak ematen dioten bereizgarritasunean dago oinarrituta); eta administrazioak ustiatzei ematen dizkien mota guztieta-ko pizgarriak.

Administrazioak, ordea, badaki sistema tradizionalak (abeltzaintzakoak bezala nekazaritzakoak ere) erabiltzen dituzten landaketa jakin batzuek zailtasun bereziak dituztela errentagarriak izateko. Horregatik, nekazaritzari eta ingurumenari laguntzeko beste bost neurri abiarazi ditugu legegintzaldi honetan; haien artean, azkena, mahasti zaharrei eusteko hartutakoa. Nekazaritzari eta ingurumenari laguntzeko ildo horretan sakontzen jarraitzea da gure nahia. Orain, Nafarroako olibadien azterketa-fasean gaude; izan ere, fase hori alde aurreko eta beharrezko urratsa da olibadietan nekazaritza- eta ingurumen-ildoak ezarri ahal izateko.

Hori jakinarazten dut, Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko martxoaren 10ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, Ablitasen 7.000 olibondo zahar desagertu izanari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Ablitasen 7.000 olibondo zahar desagertu izanari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 26ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko martxoaren 15an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru-parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera parlamentario bat egin dio Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari Ablitasen

7.000 olibondo zahar desagertu izanari buruz (PES-00382). Hona hemen nire erantzuna:

Ez Nafarroako Gobernuak ez, guk dakigula, beste edozein administrazioak ez dauka jarraipena eta erregistroa egiteko nahiz informazioa komunikatzeko inolako mekanismorik, jabe bakoitzak bere ustiatzearen erantzukizuna landaketa iraunkorren hondakinekin zer egiten duen jakiteko. Komeni da gogoraraztea jabeek berek erabakitzen dutela libreaki zer landatu eta landatutako zer erauzi beren ustiatzearen.

Nolanahi ere, gure departamentuak badaki Ablitasen eta Nafarroako beste herri batzuetan erauzitako olibondo gehienak biomasaren energia berriztagarriak erabiltzen direla, etxeetan eta enpresetan berogailu, suteki eta galdaretarako energia-iturri direlako. Bestalde, ziur dakigu erauzitako olibondoen kopuru txiki bat lorezaintzara bideratzen dela, eta balio erantsi handiko zirkuituetan sartzen dela.

Hori jakinarazten dut, Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko martxoaren 10ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, “Irabazi asmorik ez duten erakundeentzako laguntzak” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du “Irabazi asmorik ez duten erakundeentzako laguntzak” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 15eko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru-parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak idatziz erantzuteko galdera bat (PES-263) egin du irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuentzako laguntzetarako aurrekontu-lerroa zer neurri, maila eta zenbatekotan erabili

den jakiteko. Hona hemen Nafarroako Gobernuak eledun eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak 2009rako zeukan Gastuen Aurrekontuko "Irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuentzako laguntzak" izeneko kontusailak 169.002 € zeuzkan izendatuta aurrekontuan, eta horietatik 135.031,38 € erabili dira; hau da, izendatutako kopuruaren % 79,9.

Erabilitako kopurua irabazi-asmorik gabeko erakunde batzuei egindako ordainketei dagokie; ordainketa horiek benetan egindako eta ordaindutako gastuak justifikatu ondoren egin dira.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua betetzeko.

Iruñean, 2010eko martxoan

Nafarroako Gobernuak eledun eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, “Irabazi asmorik ez duten erakundeentzako laguntzak” izeneko kontusailaren zuzenketa betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du “Irabazi asmorik ez duten erakundeentzako laguntzak” izeneko kontusailaren zuzenketa betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 15eko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru-parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak idatziz erantzuteko galdera bat (PES-264) egin du irabazi asmorik gabeko beste erakunde batzuentzako laguntzetarako aurrekon-

tu-lerroari egindako zuzenketa zer neurri, maila eta zenbatekotan erabili den jakiteko. Hona hemen Nafarroako Gobernuako eledun eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariaren erantzuna:

Erabilitako kopurua irabazi-asmorik gabeko erakunde batzuei egindako ordainketei dagokie; ordainketa horiek benetan egindako eta ordaindutako gastuak justifikatu ondoren egin dira.

Zehazki, Gorricho Fundazioari 69.950,62 euro ordaindu zaizkio, esparru sozial eta sindikalean eta memoria historikoaren alorrean egindako ikerketa- eta zabalkunde-jarduerei dagozkien gastu justifikatuengatik.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua betetzeko.

Iruñean, 2010eko martxoan

Nafarroako Gobernuako eledun eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, “FAIN Nafarroako Immigranteen Elkarten Federazioarekin lankidetzan aritzeko hitzarmena” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

“FAIN Nafarroako Immigranteen Elkarten Federazioarekin lankidetzan aritzeko hitzarmena” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari jaunak galdera egin du Juan José Lizarbe Baztán buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 15eko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru-parlamentari Juan José Lizarbe Baztán idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-265), FAIN edo Nafarroako Etorrinen Elkarte Federazioarekiko lankidetzaren hitzarmenari lotutako aurrekontu-lerroa zer neurritan, mailatan eta kopurutan erabili den jakiteko. Hona hemen Nafarroako Gobernuako eledun eta Erakundeekiko Harremanetarako zein Hezkuntzako kontseilariaren erantzuna:

2009rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrean FAIN/Nafarroako Etorrinen Elkarte Federazioarekiko lankidetzaren hitzarmena zeritzon aurrekontu-lerroak 31.000 euroko diru-hornidura zeukan.

Hitzarmena sinatu baino lehen FAInen eta OAI edo Immigraziorako Arreta Bulegoaren artean egindako negoziazioetan, lehendabizikoak proiektu bat aurkeztu zuen, 25.087,50 euroko aurrekontua zeukana. OAIk aurrekontu handiagoa izateko aukera jakinarazi zion FAIn federazioari, baina horrek proiektuan aurkeztutako jarduerak bere antolaketa- eta kudeaketa-ahalmenaren arabera-koak zirela erantzun zuen.

Horregatik, hitzarmena 25.087,50 euroko aipatu aurrekontuarekin sinatu zen.

Gastua justifikatzeko unea iritsi zenean, FAInek aurkeztutako dokumentazioak 19.440,01 euro justifikatu zituen; horregatik, ezin izan zen zenbateko hori baino gehiago ordaindu.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua betetzeko.

Iruñean, 2010eko martxoan

Nafarroako Gobernuko eledun eta Erakundeetako Harremanetarako kontseilaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, jakiteko ea Sarrigurenen oinezkoen lurrazpiko pasabiderako beste aukerarik aztertu ote den.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du jakiteko ea Sarrigurenen oinezkoen lurrazpiko pasabiderako beste aukerarik aztertu ote den.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 26ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du Sarrigurengo sarbideak hobetzeari buruz. Hona hemen

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

- Gaineke pasabidea jartzeko aukerak aztertu dira, baina alde batera utzi dira arrazoi funtzional eta ekonomikoengatik.

- Puntu honetan, bigarren jarduera-fasea 2009-2016ko III. Errepide Plan Zuzendarian dago planifikatuta; plan hori denbora gutxi barru eramanen da Nafarroako Parlamentura onar dezan. Esparru horretan aztertu eta kontuan hartu ahal izanen da jardueraren 2. fasearen plangintza.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateginaren 192.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko martxoaren 8an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak ziurtasunez dakien Sustapen Ministerioak gastuari euste aldera iragarri duen murrizketak eraginik izanen ote duen Nafarroan prestazio handiko trena eraikitzean buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du jakiteko ea Nafarroako Gobernuak ziurtasunez dakien Sustapen Ministerioak gastuari euste aldera iragarri duen murrizketak eraginik izanen ote duen Nafarroan prestazio handiko trena eraikitzean buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 26ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak

galdera egin du Sustapen Ministerioak aurreko otsailaren 10ean iragarritako gastu-murrizketari buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

•Galdera Estatuko Administrazio Orokorraren erabaki bati buruzkoa da. Errespetu-printzipio orokorren ondorioz, uste dugu ez diogula erantzun behar beste erakunde bati dagokion galdera bati. Galdera dagokion erakundeari egitea iradokitzen dugu.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateginaren 192.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko martxoaren 10ean

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, Nafarroako ekonomia suspertzeko 2009-2011 urteetarako neurriei buruzko azaroaren 6ko 18/2008 Foru Legeko bigarren xedapen gehigarria betetze aldera hartutako neurriei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du Nafarroako ekonomia suspertzeko 2009-2011 urteetarako neurriei buruzko azaroaren 6ko 18/2008 Foru Legeko bigarren xedapen gehigarria betetze aldera hartutako neurriei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 10eko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko martxoaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Convergencia de Demócratas de Navarra foru-parlamentariaren elkarteari atxikitako foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera parlamentario bidez (PES-0022) informazioa eskatu du Gobernuak 18/2008 Foru Legeko bigarren xedapen gehigarria betetzeko garatutako ekimenei buruz. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Ekonomia 2009-2011n Suspertzeko Neurriei buruzko azaroaren 6ko 18/2008 Foru Legeko bigarren xedapen gehigarria betez, aztertu egin du, Ekonomia eta

Ogasun Departamentuaren bidez, Estatuko Administrazioak aipatu foru-legeko 1. artikuluko bigarren atalean adierazitako neurrien kostua bere gain har dezala proposatzeko aukera, eta ondorioztatu du Nafarroako Parlamentuak onartutako neurria Nafarroako Foru Komunitatearen zerga- eta tributua autonomiaren adierazpena dela, eta, horregatik,

beste zerga-neurri batzuekin gertatzen den bezala, neurriaren kostua bere gain hartu behar duela Nafarroako Ogasunak.

Iruñean, 2010eko martxoaren 12an

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, “Iruzur Fiskalaren Aurkako Plana” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du “Iruzur Fiskalaren Aurkako Plana” izeneko kontusaila betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 10eko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko martxoaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentari-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera parlamentario bat egin du (PES-0029) informazioa eskatzeko 2009ko Nafarroako Aurrekontu Orokorretako “Zerga-iruzurraren aurkako borroka-plana” kontusailari buruz. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

2009ko ekitaldian, ez da gasturik egin “Zerga-iruzurraren aurkako borroka-plana” kontusailean

zordunduta, Nafarroako Aurrekontu Orokorretan horretarako zeuden aurrekontu-esleipenak aski izan direlako.

Zerga-iruzurraren aurka egiteko 2008-2012ko planaren garapenak (plana gobernu-akordio bidez onartu zen aurreko azaroaren 3an) berekin dakar Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoko giza baliabideak eta baliabide materialak erabiltzea. Baliabide horiek ez daude jasota ez gastu-programa bakar batean, ez kontusail bakar batean; bai, ordea, erakunde autonomoaren aurrekontu-kredituetan, eta horiek baliatuta egiten dira aipatu planarekin zerikusia duten jarduerak.

Horiek horrela, eta kontuan hartuta zerga-iruzurrari aurka egiteko aipatu planaren eguneroko garapenean behar berriak ager daitezkeela, egokitzen jotzen da Zerga Ogasunaren aurrekontu-kredituen artean kontusail generiko eta handigarri bat izatea, aurrekontu-ekitaldi bakoitzerako aurrekontuetan hasieran onartutako kredituetan jaso gabe gelditu ahal izan diren jarduera berrien finantzaketari aurre egiteko.

Iruñean, 2010eko martxoaren 12an

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, Sanferminen Museora bideratutako ekonomia-baliabideei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Sanferminen Museora bideratutako ekonomia-baliabideei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren Xko X. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko martxoaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez jaunak galdera egin du Sanferminen Museoari buruz. Hona hemen Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak Gaikako Zentroaren finantzaketan parte hartzeko konpromisoa hartzen du eta, horretarako, gehienez ere 20 milioi euro emanen ditu.

Gobernuak, gaur egun arte, milioi bat euro bideratu du gaikako zentro horretara.

2009an, jarduera horretarako aurrekontu-saila A10001 A1100 7609 432300 zen, hau da, "Nafarroa Plana 2012. Entzierroaren eta Sanferminen Museoa" izenekoa, eta milioi bat euroko hornidura zuen.

2010. urte honetan, A10001 A1100 7609 43200 aurrekontu-sailak eusten dio jarduerari; kontusail horri "Nafarroa Plana. Entzierroaren eta Sanferminen Museoa" deritzo, eta 8.500.000 eurokoa da.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko martxoaren 15ean

Kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Estatu Batuetara eginen duen bidaiari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuko lehendakariak Estatu Batuetara eginen duen bidaiari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 22ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko martxoaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak

informazioa eskatu du Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko alkateak AEBra egindako bidaiari buruz (PES-275/10). Hona hemen Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Galderak zerikusia du Nafarroak AEBn izandako seigarren merkataritza-misioarekin; misio hori, aurreko urteetan bezala, Sodenak, Merkataritza eta Industria Ganberak eta Nafarroako Ardoaren Jatorri Izenaren Kontseilu Arautzaileak antolatu zuten. 2010eko ekitaldia New York eta Washington hirietan egin zen. Merkataritza-misioa 2010eko otsailaren 8tik 15era bitarte gauzatu zen.

Merkataritza-misioaren helburua hauek sustatzea izan zen: Nafarroaren irudia, Nafarroako Gobernuak energia berriztagarrien esparruan egiten duen politika, kultura, Foru Komunitateko ardoa eta elikagaiak; bai eta Nafarroak Estatu

Batuetan duen presentzia sendotzea eta zabaltzea ere.

Energia berriztagarrien sektorea eta nekazaritzako elikagaien industria bi ekoizpen-arlo garrantzitsuenetakoak dira Nafarroako Ekonomian. Ildo horretan, Nafarroako Gobernu eta Merkataritza eta Industria Ganbera bat datoz sektore horiek kanpoan lehiakorrak izatea ekar dezaketen ekintzak babesteko eta sustatzeko beharrean.

Nafarroako Gobernuari dagokionez, programaren finantzaketa Sodenaren ardura da, elkarte horrek, besteak beste, enpresa-egiturak hobetzeko ekintzak egiten baititu, lehiakortasun handiagoa lortzeko eta Nafarroaren lurralde-garapenerako lagungarriak izan daitezkeen harremanak izateko. Erabakitako aurrekontua 574.000 eurokoa izan zen.

Nafarroako Gobernuaren izenean, pertsona hauek joan ziren:

- Miguel Sanz, Nafarroako Gobernuko lehendakaria.
- José María Roig, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria.
- Charo Martínez, lehendakariaren aholkularia.
- Joaquín Ortigosa, Komunikazio zuzendari nagusia.
- Lehendakariaren eskolta.

Gobernu-ordezkaritzaren gastuak 18.270,11 euro izan ziren: 13.015,6 euro bidaiak ordaintzeko eta 5.254,51 euro egonaldiak ordaintzeko. Gastu horiek ordaintzeko erabilitako Nafarroako Aurrekontu Orokorretako kontusailak hauek izan ziren: alde batetik, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko “Lehendakari jaunaren eta haren gobernuaren bidaia-gastuak” eta “Foruzaingoaren bidaia-gastuak eta lokomozioa” eta, bestetik, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuko “Kontseilari jaunaren bidaia-gastuak”.

Programa hau izatea erabaki zen:

Bi hitzaldi Nafarroak energia berriztagarrien alorrean nazioartean duen aitzindaritzari buruz; hitzaldiok Miguel Sanzek eman behar zituen Washingto eta New Yorkeko bi instituzio ospetsuren egoitzetan (hurrenez hurren, “The Washington Post Conference Center” eta “Columbia University”).

Jarduera horietan guztietan parte hartzeaz gain, Yolanda Barcina alkateari Iruñeko Sanferminen Museoa izanen dena aurkeztea egokitu zitzaien New Yorkeko “University Club” delakoan eta Washingto “Library of Congress” izenekoan antolatutako bi ekitalditan.

Nekazaritzako elikagaien sektoreari dagokionez, AEBn antolatutako Nafar Asteak foru komunitateko elikagaien, olioaren eta ardoen alde egin zuen, lurraldearen ordezkari onenetakoak baitira.

Molino de Urdániz jatetxeko taldeak, David Yáñez buru zuela, aurreikusita zeukan New Yorken eta Washingtonen sukaldaritza-erakusketak eta bi afari eskaintzea berrehun adituri baino gehiagori, Nafarroako ardoen eta olioaren dastekin batera.

Nafarroako enpresa hauek zeukaten aurreikusita merkataritza-misioan parte hartzea: Baines, Alzania, Artajona, Camilo Castilla, Castillo de Monjardín, Chivite, Enanzo, Inurrieta, Ochoa, Ondarre, Otazu, Pago de Larrainzar, Príncipe de Viana, Sarría, 1877, Earth 3.0 / Casita Mami eta Hacienda Queiles.

Nafarroa sustatzeko jardueren osagarri, bi gastronomia-aste zeuden aurreikusita New Yorken eta Washingtonen, otsailaren 8tik otsailaren 15era bitartean: bi hiri horietako hogeita lau jatetxetan bi hirietan banatzen diren Nafarroako ardoetan eta nekazaritzako elikagaietan oinarritutako menuak eskaintzea zegoen programatuta.

Iruñean, 2010eko martxoaren 15ean

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Ágora aplikazioan).

Galdera, kontrolik gabe dauden zaborteziak kontrolatze aldera hartutako neurriei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du kontrolik gabe dauden zaborteziak kontrolatze aldera hartutako neurriei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 26ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko martxoaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero foru parlamentariak galdera egin du kontrolik gabeko hondakindegia kontrolatzeko hartutako neurriei buruz (PES-384). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroan ez dago eskuarki kontrolik gabeko hondakindegia esaten zaieneko bat bera ere. 1990etik aurrera, hondakin-botatzeak arautzeko lana egin zen, eta hondakindegia kontrolatuak ezarri ziren, hondakinen kudeaketarako partzuergoek kudeatuak, eta aurreko kontrolik gabeko hondakindegiek okupatutako espazioa itxi eta lehengoratu egin zen.

Gaur egun, hiri-hondakinen hiru zabortezi baina ez daude (Góngora, Tütera eta Cárcar), eta horietan guztiz desagerrarazten dira etxex etxeko bilketan jasotako hondakinak eta Nafarroan ekoizten diren jatorri industrialeko hondakin arrisku gabekoen zati bat. Haien lege-egoera zuzena da, baimenduta daude eta Ingurumen eta Ur Zuzendaritza Nagusiak aldizka ikuskatzen ditu.

Gainera, arriskurik gabeko hondakinak desagerrarazteko baimendutako beste 4 hondakindegia daude.

Azkenik, eraikuntza- eta eraispén-hondakinak desagerrarazteko instalazio batzuk mantentzen dira, pertsona pribatuek edo udalek kudeatuta. Horietako batzuek aginduzko lizentziak daukate, eta indarreko araudira egokituta daude (105/2008 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, eraikuntza- eta eraispén-hondakinen sorrera eta kudeaketa arautzen dituen). Instalazio batzuk oraindik ez dira guztiz egokitu arau horretara.

Departamentuaren jarduera bi ildotan planteatzen ari da.

- Lehenik, foru dekretu bat prestatzen ari da, alderdi jakin batzuk garatu eta, ondorioz, hondakin horien kudeaketa egokia izanen dela behin betiko bermatzeko.

Horretarako, bilerak egin dira gaiarekin zerikusitua handiena duten entitate eta erakundeekin (FNMC, CEN, eraikitzaileen elkarteak, hondakinen kudeatzaileenak eta abar), foru dekretuaren testua dela eta ados jar daitezten. Testu hori 6 hilabete inguruko epean onartzea espero da.

- Bigarrenik, instalazioak aldi behin ikuskatzen dira, haietako ingurumen-egoera zein den aztertzeko, eta, behar izanez gero, neurri zuzentzaileak hartzeko edo, are gehiago, jarduera bertan behera uzteko eskatzen zaie.

Hori jakinarazten dut, Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko martxoaren 11n

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, ADN-azterketen laborategiaren kudeaketa Nasersari esleitzeko arrazoiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du ADN-azterketen laborategiaren kudeaketa Nasersari esleitzeko arrazoiei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 16ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko martxoaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Foruzaingoak hartzen dituen ADN laginetan Barne Zuzendaritza Nagusiak egiten dituen analisiari lotutako zenbait konturi buruz (PES-273). Hona hemen Lehendakariak, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1.- Zaragozako laborategiko orain arteko kontratazioa kentzea ekarri duten arrazoiei buruzko galdera hipotesi oker batean dago oinarrituta, ez baita inolako aldaketarik gertatu Foruzaingoak bere ikerketa-lanetan lortutako laginen analisi-sisteman.

Parlamentari andreak PEI-29/2010 galderan eskatutakoari erantzunez emandako informazioan adierazi zen bezala, Nafarroa de Servicios, SAri (Nasersa) egindako mandatu bat dago, "2010. urtean Foruzaingoarentzat analisi toxikologikoen eta biologia molekularren esparruan egindako lanak" izenekoa eta Barne zuzendari nagusiak abenduaren 24ko 6.404/2009 ebazpenaren bidez onartua. Ebazpen berak horretarako 114.991,43 euroko gastua baimentzen zuen, BEZa barne. Mandatuak bi analisi-esparru handi biltzen ditu, toxikologikoa eta biologia molekularren esparrukoa, eta azken horrek profil genetikoaren deskribapena jasotzen du, ehunetatik abiatuta ADNarekin.

Gai berari buruzko informazio-eskaera horri erantzutean, agerian gelditu zen Nasersa sozietate publikoari egindako mandatu bako bako lehen ez zegoela inolako kontratu-harremanik, aipatu parlamentari andreak eskatutako informazioarako abiapuntuko hipotesiarekin bat etor zitekeenik, askotariko harremanak izan baitira erakunde publiko eta

pribatuekin, ikerketa-lanetan lagungarriak izan zitezkeen emaitza lasterrak eta egokiak lortzeko.

Askotariko harreman konbentzional edo kontratuzko horien barruan daude Zaragozako Azterketa Genetikoaren Zentroak (CAGT) egindako azterketa-eskaerak. Baina esparru horretan egindako analisen konplexutasuna eta espezifikotasuna oso handia denez, beharrezkoa da harremanak izatea hainbat diziplinatan espezializatutako laborategiekin. Izan ere, bere garaian jakinarazi bezala, Foruzaingoak aurrerantzean ere eraman ditza ke lagin batzuk Zaragozako CAGTera edo, bestela, Santiagoko Unibertsitateko Genetika Sailera. Hortaz, ez da gertatzen parlamentari andreak esaten duena; hau da, aurreko kontratazioak ez dira aldatzen, eteten edo desagerrarazten.

2.- PEI-29/2010 galdera egin zenean emandako informazioan adierazi bezala, martxoaren 26ko 27/2007 Foru Dekretuko 3. artikulua (dekretu horren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren erakunde instrumentalei egindako mandatuak arautzen dira) adierazten du erakunde instrumental horiek behartuta daudela Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta hartako erakunde autonomoek agindutako lanak eta jarduerak egitera. Horregatik, mandatu baten espedientean, edozein dela ere haren xedea, ez da aurkituko inolako proposamenik, 6/2006 Foru Legean adierazitako ildokoa denik (foru lege hori ekainaren 9koa da eta Kontratu Publikoari buruzkoa), lege horren esparrutik kanpo baitaude sozietate publikoekiko horrelako harremanak). Alde biko harremana baldintza-orrian xedatutakoan eta aurrez onartutako aurrekontuan oinarrituta ezartzen da. Dokumentu horiek, ekonomia- eta kontabilitate-eragiketen egiaztagiriekin eta txostenekin batera, parlamentariaren eskura jarri dira.

Ez dago, eta ez da beharrezkoa, Nasersak aurkeztutako inolako proposamen tekniko eta administratiborik. Baina badago metodologia bat, kontuan hartu beharrezkoa saiakuntzak egitean, haiek baliozkotzean, norainoko zehatzak dituzten teknikak bermatzean eta, beharrezkoa izanez gero, homologazioa egitean.

3.- Nasersak bitarteko material eta giza bitarteko guztiak jarri ditu lanak egiteko, bai kromatografiaren esparruan, bai biologia molekularrenean, mandatuaren xedea ondo bete dadin.

Mandatuari atxikitako pertsonalaren kostua mandatuaren prezio-taulan ikus daiteke (PEI-029an emana), azaroaren 20ko 890/2009 Foru Aginduaren bidez ekitaldi ekonomiko honetarako onartutako tarifen arabera.

Bestalde, baldintza-orrriko 2. atalean jaso beza-la (atalari "Lanetarako taldea" deritzo), Nasersaren aldetik proiektu-zuzendari bat dago, denbora partzialean diharduena eta Nasersaren laborategiaren arduraduna dena, hala nola laborategi bereko kromatografiako eta biologia molekularreko taldeburuak.

Agindutako zerbitzuak egiteko, Nasersak, beharrezko teknikan aditu direnak ez ezik, zerbitzua egiteko beharrezko azpiegitura ere baliatzen du. Aditu horiek beharrezko esperientzia daukate, dokumentu honetan deskribatutako en antzeko zerbitzuetan lortuta.

Mandatuari atxikitako pertsonalaren kostuari dagokionez, mandatuaren prezio-taulan ikus daiteke zein den (mandatuari buruzko dokumentazioa PEI-29 galderaren erantzunean eman zen).

4.- ADNtik lortutako identifikadoreen datu-base poliziala arautzen duen urriaren 8ko 10/2007 Lege Organikoko 5.2. artikulua dio soil-soilik laborategi jakin batzuek egin ahal izan behar dituztela ADNaren analisiak Legeak berak adierazitako kasuetan identifikazio genetikoak lortzeko; laborategi horiek, hain zuzen ere, Batzorde Nazionalak kreditatuta egon beharko dute ADNaren auzitegi-erabilera egiteko, eta aldi behingo kalitate-kontrol batzuk gainditu beharko dituzte.

Aipatu batzordea azaroaren 28ko 1977/2008 Errege Dekretuak arautu zuen, eta 2009ko martxoaren 27an eratu zen. Urte bereko uztailaren 21ean akordio bat eman zuen, laborategiek gizakiengan ADNaren analisiak auzitegi-ondorioekin egiteko zer baldintza bete behar dituzten adierazten duena, eta 18 hilabeteko epea eman zuen haiek betetzeko; oraindik erabaki gabe dago zer dokumentazio aurkeztu beharko den ziurtagiria lortzeko. Espainian ez dago ziurtagiria lortzeko eskaera formalizatu ahal izan duen laborategirik (beraz, Nasersaren ere ez du formalizatu).

5.- Barne Zuzendaritza Nagusiaren ekonomia-eta kontabilitate-unitateetan dauden datuen arabera, 2008an eta 2009an Zaragozako CAGT laborategiari eskatutako analisisien kostua, guztira,

114.828,55 eurokoa izan zen; euro horietatik, 43.080 euro 2008koak izan ziren eta 71.747,55 euro aurreko urtekoak.

Kopuru osoa soil-soilik ADN analisiari dagokie; aurtengo ekitaldirako baimendutako kopuruak, berriz, biologia molekularri ez ezik, legez kontrako substantzien analisi toxikologikoei ere dagozkie.

6.- Barne zuzendari nagusiak abenduaren 24an hartutako 6.404/2009 ebazpenaren bidez, 2010. urtean Poliziarentzat analisi toxikologikoen eta biologia molekularren arloko lanak egitea agindu zitzaion Nasersari. Ebazpen berak horretarako 114.991,43 euroko gastua baimentzen zuen, BEZ barne.

Ebazpenaren izenetik beretik zuzenean ondorioztatzen dira parlamentari andreak aurrekontuaz eta iraupenaz galdetutako kontuak. Unitate-preziari dagokionez, argitu behar da kostu aurreikusgarriena izan dela mandatuaren prezioa kalkulatzeko sistema, Nafarroako Gobernuak 2008ko apirilaren 14an hartutako erabakian finkatutako ildo nagusiaren garapenean onartutako urteko pleguaren arabera.

7.- Azkenik, esan behar da 2009ko ekitaldian 87 analisi egin zirela Foruzaingoarentzat, batez ere biologia molekularren esparruan.

Toxikologiari dagokionez, substantzia toxikoen kontsumoa detektatzeko testak hasi dira erabiltzen trafikoaren eta bide-segurtasunaren esparruan 2009ko bigarren seihilekoan, eta, noizean behin, substantzia toxikoei buruzko analisiak ere bai, baina, kasu horretan, Herritarren Segurtasuna Babesteari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoak kontsumoari eta edukitzeari ezartzen dien zigorraren esparruan; azken kasu horretan, gainera, aldi berean analisiak bidali egiten zaizkio Gobernuak Nafarroan daukan Osasun Atalari. 2010. urtean, orain arte, horrelako analisisetarako laginak Nasersari igorri zaizkio; zehazki, substantzien 59 lagin izan dira.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2010eko martxoaren 8an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria:
Javier Caballero Martínez

Galdera, Nafarroako Garraioei, Mugikortasunari eta Azpiegiturei buruzko Plan Integrala taxutzeko aurreikuspeni buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du Nafarroako Garraioei, Mugikortasunari eta Azpiegiturei buruzko Plan Integrala taxutzeko aurreikuspeni buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 26ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko martxoaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

CDN Convergencia de Demócratas de Navarra parlamentu-taldeko foru-parlamentari José Andrés

Burguete Torres jaunak galdera egin du Nafarroako Garraio, Mugikortasun eta Azpiegitura Plan Integralari buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak aurreikusita dauka bai Nafarroako Foru Komunitateko bidaiarien Hiriarterko Garraio Plan Integrala bai Lurreko Garraioaren Antolaketarako eta Mugikortasunerako Foru Legearen proiektua egitea. Ez dauka aurreikusita Nafarroako Garraio, Mugikortasun eta Azpiegitura Plan Integrala egiterik.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateginaren 192.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko martxoaren 15ean

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, Nafarroako Bidaiarien Garraioari buruzko Plana taxutzeko aurreikuspenei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du Nafarroako Bidaiarien Garraioari buruzko Plana taxutzeko aurreikuspenei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 26ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko martxoaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

CDN-Convergencia de Demócratas de Navarra foru-parlamentarien elkarteko foru-parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera bat egin du Nafarroako bidaiarien garraio-planari buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1.- 2008ko azaroaren 12an, Nafarroako Foru Komunitateko Bidaiarien Hiriarteko Garraio Plan Integrala (PITNA) egiteko kontratua sinatu zen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren eta enpresa esleipendunaren artean.

Kontratua gauzatzeko epea hura sinatu eta hamar hilabetekoa izatea erabaki zuten.

Enpresa esleipendunak eskatuta, Garraio zuzendari nagusiaren ebazpen bidez, kontratua gauzatzeko epea beste hiru hilabete luzatu zen. Hortaz, 2009ko abenduaren 12an zen amaitzekoa kontratua.

Plana, egun, berrikuspen-fasean dago.

Departamentuari dagokionez, planaren berrikuspena bukatu ondoren aztertuko du Parlamentura bidaltzea.

2.- Garraio Zuzendaritza Nagusia lanean hasi da Nafarroako Foru Komunitateko Lurreko Garraioaren Mugikortasun eta Antolamendu Integralerako Foru Legegaiaren testua egiteko.

Testua Nafarroako Parlamentura abenduan igorri ahal izatea aurreikusten da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateginaren 192.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko martxoaren 15ean

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, Concerdep eta Concerplus programen esparruan itundutako zahar-etxeei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Javier Monzón Romé jaunak galdera egin du Concerdep eta Concerplus programen esparruan itundutako zahar-etxeei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 22ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari José Javier Monzón Romé jaunak galdera egin du Concerdep eta Concerplus programei buruz (PES 276/09). Hona

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariaren erantzuna:

Monzón jaunak Concerdep eta Concerplus programei buruzko zenbait kontu galdetu ditu.

Concerdep programari dagokionez, eskatutako informazioa eranskin gisa gehitutako taulan dago.

Bestalde, Concerplus programari dagokionez, esan behar da programa hori abian jartzeko beharrezkoa dela aldez aurretik Concerdep izeneko programa abiarazten amaitzea. Horregatik, zure galderan aipatzen duzun egunean (2010eko ekainaren 31n), Concerplus programaren barruko plazak oraindik ituntzen hasi gabe daude.

Iruñean, 2010eko martxoaren 15ean

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

CONTRATOS CONCERDEP FIRMADOS A 31/12/0909/12/31-N SINATUTA ZEUDEN CONCERDEP KONTRATUAU			
IZENA	KONTRATUKO PLAZA-KOP.	ERAKUNDE ESLEIPENDUNA/KUDEATZAILA	IRABAZTEKO ASMOA / IRABAZTEKO ASMORIK GABE
1 LANDAZABAL ZAHAR ETXEA, BURLATA	118	SERVICIOS TÉCNICOS ASISTENCIALES DE NAVARRA, (SETENASA)	IRABAZTEKO ASMOAREKIN
2 EL MIRADOR ZAHAR ETXEA (IRUÑEA)	42	NAFARROAKO SANITAS RESIDENCIAL	IRABAZTEKO ASMOAREKIN
3 SOLIDARIDAD ZAHAR ETXEA MISTOA (CASTEJÓN)	13	CASTEJONGO SOLIDARIDAD ZAHAR ETXE MISTOA (CASTEJONGO UDALAREN ERAK. AUTON.)	IRABAZTEKO ASMORIK GABE
4 BARASOINGO SANTA ELENA ETXEA	7	"HOGAR SANTA ELENA" ZAHAR ETXEA FUNDAZIOA	IRABAZTEKO ASMORIK GABE
5 IRUÑEKO MISERIKORDIA ETXEA	100	IRUÑEKO MISERIKORDIA ETXEA FUNDAZIOA	IRABAZTEKO ASMORIK GABE
6 AZKOIENGO SAN MIGUEL ZAHAR ETXEA	15	SAN MIGUEL ZAHAR ETXEA - DON MIGUEL REVUELTA (AZKOIEN)	IRABAZTEKO ASMORIK GABE
7 VIRGEN DEL CARMEN ZAHAR ETXEA, SESMA	10	MARIA ÁLVAREZ DE EULATE FUNDAZIOA - VIRGEN DEL CARMEN ZAHAR ETXEA	IRABAZTEKO ASMORIK GABE
8 VIRGEN DEL PORTAL ZAHAR ETXEA, ALESBES	7	VIRGEN DEL PORTAL ZAHAR ETXEA, ALESBES(ALESBESKO UDALAREN ERAK. AUTON.)	IRABAZTEKO ASMORIK GABE
9 AMMA ARGARAY ZENTRO GERONTOLOGIKOA	35	AMMA NAVARRA	IRABAZTEKO ASMOAREKIN
10 AMMA MUTILVA ZENTRO GERONTOLOGIKOA	141	AMMA NAVARRA	IRABAZTEKO ASMOAREKIN
11 AMMA OBLATAS ZENTRO GERONTOLOGIKOA	130	AMMA NAVARRA	IRABAZTEKO ASMOAREKIN
12 BELOSO ALTO ZAHAR ETXEA	22	BELOSO ALTO ZAHAR ETXEA	IRABAZTEKO ASMOAREKIN
13 TORRE MONREAL ZAHAR ETXEA	14	TORRE MONREAL ZAHAR ETXEA	IRABAZTEKO ASMOAREKIN
14 SAN MIGUEL ZAHAR ETXEA (FUNES)	14	SAN MIGUEL ZAHAR ETXEA FUNDAZIOA (FUNES)	IRABAZTEKO ASMORIK GABE
15 SAN JERONIMO ZAHAR ETXEA (LIZARRA)	14	SAN JERONIMO ZAHAR ETXEA FUNDAZIOA (LIZARRA)	IRABAZTEKO ASMORIK GABE
16 SANTA MARIA ZAHAR ETXEA (LOS ARCOS)	7	"SANTA MARIA" ZAHAR ETXEA, LOS ARCOS ALDEKO OINARRIKO GIZARTE ZERBITZUKO MANKOMUNITATEARENA (ERAK. AUTON.)	IRABAZTEKO ASMORIK GABE
17 SAN JOSE ZAHAR ETXEA (CORELLA)	28	CORELLAKO SAN JOSE ETXEA (ERAK. AUTON.)	IRABAZTEKO ASMORIK GABE
18 NUESTRA SEÑORA DE GRACIA ZAHAR ETXEA (TUTERA)	35	DON MIGUEL EZA FUNDAZIOA	IRABAZTEKO ASMORIK GABE
19 SAN JOSE ZAHAR ETXEA, BERA	14	SAN JOSE ZAHAR ETXEA, OSPITALEA, FUNDAZIOA, BERA	IRABAZTEKO ASMORIK GABE
20 SAN JOSE ZAHAR ETXEA, VALTIERRA	21	SAN JOSE ZAHAR ETXEA	IRABAZTEKO ASMORIK GABE
21 ZAHAR ETXEA (AMESKOA IBARRAK) (EULATEKO UDALA)	8	AMESKOA INGENIERIA Y ESTUDIOS DE DESARROLLO RURAL	IRABAZTEKO ASMOAREKIN
	795		

Galdera, galzoriko espezieak zentral eolikoetan hiltzea ekidite aldera hartutako neurriei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du galzoriko espezieak zentral eolikoetan hiltzea ekidite aldera hartutako neurriei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko martxoaren 5eko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru-parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du desagertzeko arriskuan dauden espezieak zentral eolikoetan hil ez daitezen hartutako neurriei buruz (PES-399). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Lehendabiziko aerosorgailuak Erreniegan eta Leitzan jarri zirenetik, enpresa sustatzaileek, ingurumen-baimenatarako baldintzen artean jasotako ingurumen-zaintzarako planaren barruan, beharrezko landa-lanak egin dituzte, parke eolikoek faunan eta, bereziki, hegaztien eta saguzarren artean zer-nolako eragina duten jakiteko.

Landa Garapen eta Ingurumeneko Departamentuak azterketa orokorrak sustatu ditu aerosorgailu berriak jarri aurretik, bai eta azterketa espezifikoa ere, eta horiek guztiak Ingurumenaren Ebaluazio Sailaren, laguntza teknikoan eta Oihan-zaintzako langileen parte-hartzearekin egin dira.

Adibide gisa, hauek aipatzen dira: estepa-hegaztien eta hegazi harraparien azterketa espezifikoa; urteko jarduera-protokoloak, parke eoliko-eta espazioaren erabilera, lekualdaketak, arriskuak eta talkak aztertzeko; mugimenduaren hasierak talketan duen eraginari buruzko esperientziak; sai arreen etzalekuen eta parke eoliko jakin batzuen arteko erlazioak; elikadura-lekuen eragina eta erlazioa; eta abar.

Aurrekoari bibliografia berraztertzean lortutako informazioa eta garapen eoliko handiko lurraldeetan erabiltzen den metodologiarekiko aldea gehitzen zaizkio. Horri guztiari esker, informazio garrantzitsua lortu da, parke eolikoan ingurumen-tramitazioan egiten den irizpide anitzeko azterketaren aplikazioan jasotzen dena.

Aldi berean, planteamendu horren ondorioz, ondo arrazoitutako zenbait neurri hartu ahal izan dira. Besteak beste: parkearen hasierako proiektua berriz diseinatzea, habiagintzako zonak galarratzeko; aerosorgailuak egokitzea, geldirik egon daitezen haizearen abiadura 4 m/s-tik beherakoa bada; parke eoliko jakin batzuetako zenbait errota-aren besoak margotzea (bibliografian ikasitako diseinuak erabiliz); kokapen jakin batzuk kentzea, baldintza zehatz batzuk betez gero berriz kokatzeko aukera badago; zenbait simaurtegi ixtea eta zabortegei eta hondakinen araztegi batzuetan hondakinak nola desagerrarazten diren kontrolatzea.

Hori jakinarazten dut, Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko martxoaren 18an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, uztailaren 2ko 13/2008 Foru Legeak oinarrizko errentari dagokionez ezartzen duena betetzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du uztailaren 2ko 13/2008 Foru Legeak oinarrizko errentari dagokionez ezartzen duena betetzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko abenduaren 24ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko martxoaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du oinarrizko errentari buruz (PES 344/09). Hona hemen Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Figueras andreak galdera hau egin du:

Zer egingen du Nafarroako Gobernuak bermatzeko –oraingoz ez da betetzen ari– legean ezarri-

takoa egiazki beteko dela? Nola aplikatuko zaizkie likidazioak garaiz familia-unitateei, haiek osatzen dituzten kideen kopuruaren arabera?

Galdera horri erantzuteko, esan behar da ez dela egia ez dela betetzen ari 9/1999 Foru Legearen bermea; foru lege hori apirilaren 6koa da, Gizarte Eskubideen Gutuna izatea du helburu, uztailaren 2ko 13/2008 Foru Legeak aldatu zuen, eta oinarrizko errentagatik familia-unitatearen osararen arabera zenbat jaso behar den arautzen du. Zenbatekoak 4. artikuluan daude jasota, eta desberdinak dira 2008., 2009. eta 2010. urteetarako.

2010. urterako hau dago finkatuta: lanbide arteko gutxieneko soldataren (LGSren) %100eraino pertsona batentzat, LGSren %120eraino birentzat, %130eraino hirurentzat, %140eraino laurentzat eta %150eraino bost edo gehiagorentzat.

Aurtengo otsailean, oinarrizko errentaren familia-unitate onuradun guztiek parametro horien arabera jaso beharreko zenbatekoak eguneratu dira eta, jakina, ezin bestela izan, 2010. urte honetarako kontzesio guztiak horrela egin dira.

Iruñean, 2010eko martxoaren 15ean

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, animaliak babesteko Etxauriko zentroa Centro Veterinario San Fermíni esleitu izanari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du animaliak babesteko Etxauriko zentroa Centro Veterinario San Fermíni esleitu izanari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko otsailaren 26ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko martxoaren 25an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru-parlamentari Ana Figueras Castellano andreak galdera parlamentario bat egin du animaliak babesteko Etxauriko zentroari buruz (PES-379/10). Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

Lehenik eta behin, esan nahi dizut zerbitzua-
ren kudeaketaren kontratua enpresa lehiatzaile bati esleitzea dela lehiaketaren helburua; zehazki, jarritako baldintzak bete eta administrazio-klausulen orriko baremoak aplikatuta, eskaintzarik onena aurkeztu duen enpresari lehiatzaileari esleitzea.

1.- Animalien Babeserako Etxauriko Zentroa Osasun Publikorako Institutuak eraiki zuen 1993an, eta hidatidosia kontrolatzeko 1993an abi-

arazitako osasun publikoko programaren barruan funtzionatzen du. Osasun publikorako programa horrek jarri ziren helburuak lortu ditu, eta animaliak babesteko Etxauriko zentroa tresna eraginkorra da, zentroari esker ia erdietsi baita gure komunitateko kaleko zakur abandonatu guztiak desagertzeara, hala nola hidatidosiak zakurren artean daukan eraginaren jarraipena egitea.

Programa hori garatzearekin batera, ezinen bailitzateke bestela izan, animalien babesari eta ongizateari buruzko araudia betetzen ari da.

2.- Esleipen-prozedura arautu duen administrazio-klausulen orriaren arabera, erabilitako baremoak, azken puntuazioa kalkulatzeko, 40 puntu ematen dizkio gehienez ere proposamen teknikoari eta 60 puntu eskaintza ekonomikoari.

3.- Animaliak eta Landareak Babesteko Nafarroako Elkarteari esleitu zaizkio orain dela 17 urte-tik hona deitutako lehiaketa guztiak. Aldi horretan, Osasun Publikorako Institutuko teknikariek kontrolatu dute zerbitzua, eta inoiz ere ez da jakinarazi kontratuak larriki ez bete eta haiek iraugitzeko arrazoi zatekeen inolako egoera edo gorabeherarik.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko martxoaren 22an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

